

Nekane Mirandak lortu du doktoretza aurreko laguntza ikasturte honetarako

2011/09/29

Hiru lagun aurkeztu ziren deialdi honetara, doktoretza aurreko laguntza jasotzeko: Aroa Murciano Eizagirre, Laila Varela Lasarte eta Nekane Miranda Franco. Ebaluazio Batzardeak zorrotz arakatu du hautagaiek betetzen ote zituzten programak ezarritako baldintzak, bereziki bertako bigarren puntuaren agertzen den bezala, hautagaiak aurkeztu eta onartuak izatea Eusko Jaurlaritzak 2011-2012 ikasturterako ikertzaileak prestatze aldera irekiko duen doktorego aurreko beken deialdira. Informazio hori jaso eta aztertuta, Ebaluazio Batzardeak deialdiaren behin betiko esleipenaren zerrenda egin du.

1. postuan: Nekane Miranda Franco
2. postuan: Aroa Murciano Eizagirre
3. postuan: Laila Varela Lasarte

Hortaz, behin betiko ebazpenaren zerrenda ikusita, Nekane Miranda Francok jasoko du doktoretza aurreko diru laguntza 2011-2012 ikasturterako.

